



ARABAKO EKONOMIA: ***Egoeraren adierazleak***

2025eko Azaroa

www.araba.eus





AURKIBIDEA

- EKONOMIA INGURUNEA	3
- ARABAKO EKONOMIA	7
2.1. KANPO MERKATARITZA	8
2.2. BENETAKO BARNE PRODUKTU GORDINA	9
2.3. INDUSTRIA EKOIZPENA	10
2.4. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA	12
- LABURPEN TAULA. ADIERAZLE NAGUSIAK	13



EKONOMIA INGURUNEA

- 2025eko bigarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak hazkunde erritmo egonkorrari eutsi dio, batez ere Estatu Batuen eta Asiako ekonomia nagusien dinamismoagatik, hala nola Txinarena eta Indiarena. Aldi horretan, eurogunean, 2024ko erdialdean hasitako susperraldia finkatu da.
- ELGA, bere osotasunean, %1,8 hazi da 2025eko bigarren hiruhilekoan. Ekonomia nagusien aurrerapena barne eskarian oinarritu da, prezioen moteltzeak eta lan merkatu sendoak bultzatutako kontsumo pribatuak lagunduta.
- Suspertzen ari diren ekonomiei dagokienez, oro har, joera positiboari eutsi diote. Ekonomia aurreratuek, oro har, hazkunde egonkorra izan dute, eta Estatu Batuek, Japoniak eta euroguneak ekarpen positiboak egin dituzte.
- Ekonomia aurreratuen artean, Estatu Batuek izan dute hazkunderik handiena, urteko bigarren hiruhilekoan %2,1eko urtetik urterako hazkundera izan baitute. 2024ko bigarren erdian hasitako susperraldiari eutsi dio Japoniak 2025eko bigarren hiruhilekoan, eta hazkunde tasa %1,7 izan da. Bestalde, euroguneako BPGa %1,5 hazi da 2025eko bigarren hiruhilekoan. Datu horrek eurogunearen susperraldi leun baina jarraitua baieztatzen du.



EKONOMIA INGURUNEA

- Euroguneko herrialdeak banaka aztertuz gero, Alemaniak %0,2ko hazkundera izan du bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan bezala. Frantzia, urtetik urterako BPGa %0,8 hazi da bigarren hiruhilekoan, lehenengo hiruhilekoan hazi zena baino zertxobait gehiago. Italian, aldiz, %0,4raino murriztu da hazkunderaren erritmoa, urteko lehenengo hiruhilekoan izandako %0,7aren azpitik. Espainiak, bestalde, hazkunde erritmo handiari eutsi dio, eta BPGa %3,1 handitu da, nahiz eta aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat txikiagoa izan.
- ELGak irailean argitaratutako azken aurreikuspenen arabera, munduko BPGaren hazkundera moteldu egingo da: 2024an %3,3 izan zen; 2025ean %3,2 izango da, eta, 2026an, %2,9. Izan ere, muga zerga altuagoek eta ziurgabetasun politikoak moteldu egingo dituzte inbertsioa eta merkataritza.



EKONOMIA INGURUNEA

- Estatu Batuetan, hazkunde tasa nabarmen murriztuko dela aurreikusten da (2024an %2,8 izan zen; 2025ean %1,8 izango dela aurreikusten da, eta, 2026an, %1,5), muga zergak igotzearen, immigrazio garbia moteltzearen eta gobernu federaleko plantilla murriztearen ondorioz. Era berean, aurreikusten da Txinak dezelerazio nabarmena izango duela hazkundera, %4,9koa 2025ean eta %4,4koa 2026an, aurrefinantzaketa neurriak pixkanaka bertan behera utzi, muga zerga altuagoak indarrean jarri eta laguntza fiskala murriztu ahala. Bien bitartean, euroguneko BPGaren hazkunderaren dezelerazio neurritsuagoa baina etengabea aurreikusten da, %1,2koa 2025ean eta %1,0koa 2026an, gero eta tentsio eta ziurgabetasun komertzial eta geopolitiko handiagoak baitaude, nahiz eta neurri batean orekatu egingo diren inbertsio publiko handiagorekin eta kreditu baldintza hobekin.
- Inflazioari dagokionez, ekonomia gehienetan murriztu egingo dela aurreikusten da. Kalkulatzen da inflazio orokorra 2025ean %3,4 izatetik 2026an %2,9 izatera pasako dela. Hala eta guztiz ere, inflazio presioak izan daitezke berriro ere. Zenbait ekonomiatan, ondasunen prezioak apur bat handitu dira eta zerbitzuen inflazioa etengabea izan da.
- Estatistika Institutu Nazionalaren aurrerapen baten arabera, Espainiak hazkunde erritmo handiari eutsi dio 2025eko bigarren hiruhilekoan, eta BPGa %3,0 handitu da, nahiz eta aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat txikiagoa izan. Datu horrek berresten du Espainia euroguneko hazkunde ekonomiko handieneko herrialde garatua dela.



EKONOMIA INGURUNEA

- Espainiako Gobernuak, irailean argitaratutako azken aurreikuspenetan, hamarren bat handitu du aurtengo hazkundera, %2,7raino, eta %2,2an utzi du 2026koa. Hauek dira BPGaren hazkundera azaltzen duten faktore nagusiak: lan merkatuaren dinamismoa, familien kontsumoaren bilakaera positiboa eta espero baino portaera hobea, bai enpresen inbertsioari dagokionez, bai kanpoko sektoreari dagokionez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko BPGak, bestalde, Eustatek aurreratutako azken informazioaren arabera, urtetik urterako %2,2ko hazkunde positiboa izan du 2025eko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat handiagoa. Hazkunde horrek eurogune osoan lortutakoa ere gainditzen du (%1,5), eta barne eskariaren dinamismoan oinarritu da, kanpo sektorearen ekarpena negatiboa izan baita.
- Eusko Jaurlaritzak irailean argitaratu dituen aurreikuspen ekonomikoen arabera, aurten %2,2 haziko da ekonomia, eta 2026an %1,9. Horrek esan nahi du joera dinamikoa izango dela oraindik 2025ean, eta 2026an nolabaiteko moteletzea izango dela, barneko eskaria eta enplegua moteldu ahala. Aldiz, kanpoko saldoa hobetu egingo da, Europako ekonomiak hobetu ahala.



ARABAKO EKONOMIA

- 2024an, Arabako esportazioak gutxi egin ziren nabarmen (%10,4), eta, 2025ean, Arabako kanpo merkataritza ohiko joera positiboa berreskuratzen ari da, gure esportazioen helmuga nagusiak diren Alemaniako eta Frantziako ekonomien susperraldiari esker, neurri handi batean. Hala, urteko lehenengo hiruhilekoan Arabako esportazioek %8,5eko hazkunde metatua izan dute. Urteko bigarren hiruhilekoan erregistratutako hazkundera apur bat txikiagoa da (% 7,8).
- 2024arekin alderatuta 2025ean esportazioek izan duten portaera hobea ez da Arabako industriaren jardueran nabaritzen ari. Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan, Arabako industria produkzioaren indizeak %4ko murrizketa metatua izan du.
- Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, Arabako BPGa %2,0 handitu da 2025eko bigarren hiruhilekoan, 2024ko aldi berarekin alderatuta; hau da, urteko lehenengo hiruhilekoan erregistratutako urtetik urterako hazkundera baino hamarren bat gehiago, eta euroguneko batez bestekotik gora (%1,5).
- Inflazioa %2,4an kokatu zen maiatzean (aurtengo tasarik baxuena), eta irailean %3,3ra iritsi zen, EAEko batez bestekoaren maila berera, baina Espainiako batez bestekoaren eta euroguneko KPIaren %2ko helburuaren gainetik.



Kanpo Merkataritza

(Urtearteko bariazio tasa)


	2023	2024 (*)	2025eko metatua (*)	Azken datua (*)	Data
Esportazioak	9,4	-11,1	5,5	-32,7	25-abuztua
Inportazioak	-0,9	3,4	15,6	-14,5	25-abuztua
Estaldura Indizea (%)	172,6	148,5	135,2	90,9	25-abuztua

Abuztura arte (azken datu erabilgarria), Arabako esportazioek %5,5eko hazkunde metatua izan dute, eta inportazioek %15,6koa. Horren ondorioz, estaldura tasa 135,2ra jaitsi da

Iturria: Merkataritzako Estatu Idazkaritza. Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa

(*) Behin-behinekoa


Urtearteko hazkundea





Benetako Barne Produktu Gordina

2025eko bigarren hiruhilekoan, Arabako BPGak %2,0ko urtetik urterako hazkundera izan du. Tasa hori aurreko hiruhilekoko baino hamarren bat handiagoa izan da, baina oraindik bi hamarren txikiagoa da 2024 osoko batez besteko tasa baino.




Iturria: EUSTAT

(*) behin-behinekoa



Industria Ekoizpena


Arabako industria produkzioaren indizearen bilakaerak, 2025ean, 2024ko beheranzko joerari eusten dio. Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan, Arabako industria produkzioaren indizeak %4ko murrizketa metatua izan du.



Iturria: EUSTAT (*) behin-behinekoa



(BPG ETA IEA) BILAKAERA



	2022				2023				2024				2025	
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II
ARABA														
BPG	5,0	4,3	4,2	3,5	3,7	3,9	3,5	2,8	2,6	2,2	2,1	2,0	1,9	2,0
IEA	4,4	8,0	1,6	1,0	6,5	-1,8	-1,0	0,7	-2,7	-3,6	-1,3	-2,4	-3,3	-3,4
EAE														
BPG	6,8	6,3	5,4	4,2	3,2	2,9	3,0	3,0	3,1	2,8	2,3	2,0	2,1	2,2
IEA	5,7	5,9	2,5	2,6	2,7	-0,4	1,3	1,1	-0,8	-1,1	-1,0	-1,6	-1,2	-1,5
ESTATUA														
BPG	7,1	7,4	6,3	4,7	3,6	2,0	2,0	2,2	2,9	3,7	3,6	3,7	3,1	3,0
IEA	1,3	5,4	3,5	-0,2	0,8	-2,9	-3,1	-1,1	1,1	-0,1	-0,5	1,3	-0,7	1,5


Iturria: Eustat eta EIN



Erregistratutako Langabezia

Urrian, 26 langabe gehiago izan dira Araban, hau da, %0,1 gehiago. Hala eta guztiz ere, guztira 18.340 langabe daude, 2008ko urritik izandako kopururik txikiena. Aurreko urtearen aldean, langabezia %0,9 murriztu da, eta 163 langabe gutxiago daude.

Aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Araban langabezia gutxitu egin da eraikuntzan eta zerbitzuetan, eta handitu, aldiz, nekazaritzan, industrian eta lehendik ere lanik gabe zeudenen artean. Aurreko urteko hilabete berarekin alderatuz gero, langabezia gutxitu egin da nekazaritzan, eraikuntzan eta zerbitzuetan, eta handitu, aldiz, industrian eta lehendik ere lanik gabe zeudenen artean.





Laburpen Taula. Adierazle Nagusiak

	2023	2024	2025eko metatua	Azken datua	Data
BPG					
Estatua	2,5	3,5		3,0	25-II Hi
EAE	3,0	2,5		2,2	25-II Hi
Araba	3,5	2,2		2,0	25-II Hi
IEA					
Estatua	-1,6	0,5	1,1	1,7	25-iraila
EAE	1,0	-0,9	-1,1	-0,8	25-iraila
Araba	1,1	-2,2	-4,0	-10,0	25-iraila
KPI					
Estatua	3,1	2,8		3,0	25-iraila
EAE	3,1	3,6		3,3	25-iraila
Araba	2,5	3,1		3,3	25-iraila
ESPORTAZIOAK					
Estatua	-0,9	0,1	0,3	-9,3	25-abuztua
EAE	0,1	-5,4	-3,0	-29,0	25-abuztua
Araba	9,4	-11,1	5,5	-32,7	25-abuztua
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA					
Estatua	-4,6	-5,4		-6,1	25-urria
EAE	-2,7	-0,4		-0,9	25-urria
Araba	0,3	-3,7		-0,9	25-urria

Datu absolutuak (%)

LANGABEZI TASA EPA Inkesta (INE)					
Estatua	12,2	11,3		10,5	25-III Hi
EAE	7,7	8,1		7,0	25-III Hi
Araba	7,2	8,6		7,8	25-III Hi
LANGABEZI TASA BJA Inkesta (EUSTAT)					
EAE	7,8	7,4		6,8	25-III Hi
Araba	7,7	7,5		7,5	25-III Hi

Iturriak: EIN, EUSTAT, EEZP, Aduenetako Merkataritza